



## OINEZKOEN ETA TXIRRINDULARIEN MUGIKORTASUNeko UDAL ORDENANTZEI buruzko II. lan jardunaldia

Donostia, 2018ko otsailak 21

Duela gutxi arte bizikleten eta oinezkoen zirkulazioari buruzko udal ordenantzak bideratuta egon dira bide publikoen erabilera arautzera, zirkulazioari dagokionez, automobilari eta zirkulazioaren jariakortasunari protagonismoa ematen zion ikuspuntu batetik begiratuta, eta bigarren mailan uzten zituzten oinezkoen eta txirrindularien beharrak.

Baina azken urteotan, mugikortasun jasangarriaren politiken sustapena dela-eta gure herrietan izandako bilakaeraren ondorioz, batetik, gora egin du oinez eta bizikletaz egindako joan-etorrien kopuruak, eta, bestetik, eskaera sozial eta tekniko bat sortu da, arreta handiagoa eskatzen duena oinezkoentzat, txirrindularientzat, mugikortasun mugatuko pertsonentzat eta garraio publikoarentzat.

Aldaketa horiek agerian utzi dute gure herrietako araudia eguneratzeko beharra, eta, ondorioz, beste modu batera planteatu behar dira aurreko bide hierarkia eta eremu publikoaren antolaketa, betiere jasangarritasuna xede dela, eta, era berean, oinezkoen eta txirrindularien eskubideak aitortu eta babestu behar dira.

Egoera horren aurrean, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluak behin baino gehiagotan adierazi zuen beharrezkoa dela idazki bat izatea, udalerrriak bideratuko dituen beren araudietan txirrindularien eta oinezkoen mugikortasuna gehiago kontuan hartzera.

Hori helburutzat hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak Itziar Eizagirre (Mirua 21) abokatuari esleitu zion dokumentu bat idaztea, 2016ko urrian egin zen lan jardunaldi batean eztabaidatu zena. Dokumentu hori beste berri bat izateko oinarria izan da, jardunaldian zehar bildutako ekarpenak aintzat hartuta, bizikleta bidezko mugikortasuneko aholkularia den Esther Anayaren eskutik. Azken bertsio hau da oraingo jardunaldian aurkeztuko dena, jasotako ekarpenak itzultze aldera.

Halaber, bertan aukera izango dugu mugikortasunaren arloko legedian adituak diren bi legelari ospetsuekin eztabaidatzeko eta haien ikuspegiak ezagutzeko: Francisco José Bastida (Konstituzio Zuzenbideko katedraduna Oviedoko Unibertsitatean) eta Mariano Reaño (abokatua eta lege aholkularia ConBici-n).

Espero dugu jardunaldia lagungarria izatea Gipuzkoako egungo ordenantzak hobetzeko eta orekatzeko, eta baita ere aurrerago beste batzuk sortzeko, oinezko eta txirrindularien eskubideak sustatuz eta babestuz.

### Informazioa eta izen emateak

943 112 166 / [bizikleta@gipuzkoa.eus](mailto:bizikleta@gipuzkoa.eus)

Izen ematea doakoa da, baina plaza kopurua mugatua denez, mesedez etorri aurretik baieztatu, otsailaren 14a baino lehen, eta adierazi zure izen-abizenak, lanpostua/kargua edo lanbidea, erakundea, herria eta helbide elektronikoa.



## PROGRAMA

### Oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuneko udal ordenantzei buruzko II. lan jardunaldia

Donostian, 2018ko otsailak 21  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregia, 3. solairua. Gipuzkoa plaza, z/g

#### Asteazkena, otsailak 21

**09:30etan Ongietorria eta jardunaldiaren hasiera**

*Marisol Garmendia Beloqui (Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatua)*

**09:45etan “Bizikleta bidezko mugikortasuna udal ordenantzetan jasotzeko gomendio teknikoak” izeneko gidaliburuaren aurkezpena**

*Esther Anaya (Bizikleta bidezko mugikortasuneko aholkularia eta ikertzailea, eta gidaliburuaren egilea)*

**10:15etan Udal ordenantzen zeregina oinezko eta txirrindularien sustapen eta babeserako**

*Francisco José Bastida (Konstituzio Zuzenbideko katedraduna Oviedoko Unibertsitatean, eta CicloJuristas sareko bozeramailea)*

**10:45etan Kafea**

**11:15etan Udaletan mugikortasunaren arautzeari buruzko txirrindularien ikuspegia**

*Mariano Reaño (Abokatu eta lege aholkularia ConBici-n, Coordinadora en Defensa de la Bici)*

**11:45etan Mahai-ingurua eta eztabaida publikoarekin**

**13:00etan Jardunaldiaren amaiera**